

HARREMANA BEZEROEKIN

Hasieran guk ez dugu hirian lokal baten beharrik izango, ez dugu beraz ez erosi ez alokatu beharrik izango. Izan ere, langile bakoitzak bere etxetik egingo du lan, eta hau guztia bazkideen artean partekatua izango da. Egia da, gure lana aurrera joan ahala eta ondo joanez gero, diru gehiago lortzean hirian gure enpresaren biltegia jarriko genukeela beharrak horrelakorik eskatzen badigu.

Bestalde, ez dugu harreman fisiko handirik edukiko bezeroekin; horregatik ez dugu bulego baten beharrik aurreikusten behar duten informazio guztia gure aplikazioan aurkituko baidute. Guk ere, gure lan orduen ordutegia jarriko dugu bezeroren batek kezka bat edukiz gero, guri deitu eta dena argitu ahal izateko. Zalantzak argitzeko bi medio izango dituzte, gmail bidez edo telefonoz. Aplikazioan bertan izango dute gure telefono zenbakia. Halere youtubekin lorturak edo linkak egingo ditugu, hemen bideon bitartez sor daitezkeen zalantza ezberdinen argibideak emateko, hau da, tutorialak egingo ditugu. Eta bezeroek egiten dizkiguten galderak edo zalantzak, tutorial berriak egiteko motiboak izango dira beti. Horrela dei eta kontsulta ugari aurreztuko ditugula seguru gaude.

Gure eginkizuna enpresa gero eta handiago egitea da. Horrela, bezeroei aplikazio gero eta hobeagoa eskainiko diegu. Hasiera batean, Gasteizen bakarrik izango dugu enpresa, baina pixkanaka gero eta enpresa gahiago eta handiagoak edukiko ditugu. Horrela langile asko edukiz, bezeroek ez dute kotxea aparkatzeko kezkarik edukiko. Bezeroek, zalantzarik edukiz gero, pertsona ezpezifikoak egongo dira beraiei erantzuteko. Mugal gainditu ahi ditugu eta edozein herrialdeetako herrietan zein hirietan aplikagarri izatea nahi dugu gure enpresa lurralde ezberdinetan eskaintzeko.

Gure enpresatik irabaziak ateratzean joan ahala, satellite batekin konektatzen saiatu nahi dugu, bezeroek lanik ez hartzeko. Horrela, kotxeak

aparkatutakoan, sateliteak berehala bidaliko du informazioa aplikaziora, eta bezeroek ez dute mobila hartu beharrik aparkatu dutela adierazteko.

